

# **O A R R A K**

**1. INTERNET = INFORMAZIÑOA = WEB GUNEAK**

**2. ZER EGIN GEINKE TOPAU DOGUN INFORMAZIÑOA  
LIBURU FORMATUAN DAGOANEAN – (ACROBAT  
READER)**

**EUSKERAZALEAK**

## 1. INTERNET = INFORMAZIÑO = WEB GUNEAK

Internet´en uretan murgildu aurretik, adibide txiki bat ipiñi gura dot. Egunkaria, aldizkaria edo beste edozein argitalpen erosten badogu, ikusiko dogu bertan era askotako informaziñoa daukagula: artikuluak, eretxiak, editorialak, propagandea, etab,

Argitalpen ori martxan ipiñteko, ainbat eragilek parte artu bear izan dabe: informaziñoa idatzi dabenak, argitalpenaren eta edukiñen formatua diseiñetan dabenak, euren iragarkiak argitaratu gura dabezanak, inprimatzaileak, banatzaileak, saltzaileak, etab.

Internet´en munduan be antzekoa pasetan da. Artikulu bat idatzi dot, argazki batzuk erantsi deusadaz, iragarki bat, etab. Eta, jakiña, *sareen sarean (red de redes)* argitaratu gura izango dot, beste persona batzuek be ikusi daien. au da, *www* karaktere-multzoaz asten dan elbide baten argitaratu gurako dot.

Orretarako, ainbat aukera eukiko dodaz: beste persona, enpresa, erakunde edo dana dalako batek nire artikulua argitaratzea, nik neuk zuzenean argitaratzea, eta, geiago oraindiño, neure elbide propioan argitaratzea, neure egunkari edo aldizkari propioa izango balitz lez. Argitalpen orri, jagokon forma emon ostean, *web gune* esaten jako. Web gune batek orri bakarra, orri gitxi batzuk edo orri asko eta asko euki leiz (kontuz: askotan, web guneari ere web orri esaten jako). Web gune orreetara joateko, *loturak* edo *estekak* erabilten doguz (gezia esteka baten gaiñean ipiñten dogunean, esku baten irudia agertzen da). ori bai, informaziñoaren diseiñua erabilten erraza izan bear da, informaziño orretara jotzen dabenek argi eta garbi ikusi eta ulertu daien informaziño ori. Web gunea osotu eta gero, domeiñu baten argitaratu edo ostatutu bear dogu, bai zearka (beste ornitzaile batzuen bitartez) edo zuzenean gure domeiñuan (adibidez, [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)).

Beraz, argi euki bear dogu: Internet´en informaziño jakin bat ba´dago, nonok or ipiñi edo argitaratu daualako da.

Pentsau daigun nire elbidea erregistrau gura dodala. Normalean, elbide orrek *www* eukiko dau aurretik (World Wide Web), gero ´puntu´ eukiko dau eta, azkenik, nik aukeratu dodan izena. Azkeneko izen ori zuzenean ornitzaile baten bidez edo, ostantzean, bitartekari bearra egiten dauan ornitzailearen bategaz erosi bear dot (kasu orretan be, ezin dira egon bardiñak diran elbide bi). Izen orren ostean beste ´puntu´

bat egongo da, eta gero bi edo iru karaktere: com, net, org, biz, etab. Adibidez: [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net), [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) edo [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

Orniztaileen bidez, informaziñoa web gune baten ostatutzen dogu, au da, altea emon dogun elbide orretan; esaterako, [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz). ilean edo urtean kuota bat ordainduta, orniztaile batek erabiltzaile-izena eta pasaitza emongo deustaz, eta, olan, baimena eukiko dot nire idatziak, argazkiak eta abar argitaratzeko, nik argitaratutako informaziñoan aldaketak eta zuzenketak egiteko eta abar. olan, Internet´en erabiltzaileek nik argitaratutako informaziñoa ikusi aalko dabe euren ordenagailuen bidez, etxetik, bearretik, liburutegitik...

### **Internet´en informaziñoa bilatzea**

Leenengo-leenengo, Internet´en nabigetako aukerea emoten deuskun programea ipiñi bear dogu martxan. Normalean, Microsoft etxearen *Internet Explorer* programea erabilten da (ordenagailuaren eskritorioan edo maai-gaiñean agertzen dan `e´ urdiña). ADSL kontratau ba´dogu, ostera, konesiñoa berez egiten da ordenagailua martxan ipinten dogunean.

Ikusi gura dogun web gunearen elbidea ba´dakigu, orretarako dagoan eremuan idatzi eta Intro tekleari sakatuko deustagu. olan, eskatutako web gunea agertuko da. Normalean, elbideak onen antzekoak izaten dira: <http://www.izena.com> . Internet erabilten asi giñanean, elbidea osorik idatzi bear izaten genduan. Orain, barriz, naikoa da [www.izena.com](http://www.izena.com) idatzi eta Intro sakatzea, *http://* zatia berez idatziko da pantailan eta [Oarra: orain, badira asieran www ez daukien elbide asko; beraz, web gune baten elbidea. <http://support.microsoft.com> dala esaten badeuskue, ez dogu www geitu bear].

Eskatutako web gunea agertzen danean, ikusiko dogu era askotakoa izan leitekela. Adibidez, idatzi labur bat izan leiteke, iragarkiakaz edo iragarki barik. Geienetan, ostera, askozaz be informaziño zabalagoa jasoten da web-guneetan. Gaiñera, beste web-gune batzuetara joateko lotura edo estekak be agertu leiz (gaiñean klik egitean, eskatutako web gunea agertuko da).

Baiña, geienetan, gure asmoa ez da izaten web gune jakin bat ikustea. Gai bati buruzko informaziñoa bilatu gura izaten dogu, baiña ez dakigu ze web gunetan egon leiteken orri buruzko informaziñoa.

Informaziño ori topetako, *bilatzaileak* erabilten doguz. Bilatzaileak be web-guneak dira, au da, Internet elbide bat daukie, eta erabiltzaileak eskatutako informaziñoa topetako erabilten dira (azken baten, 1818 telefonora deitu eta persona

baten telefono-zenbakia eskatzea lez izango litzateke; bear ba´da bere leenengo abizena bakarrik dakigu, edo bere elbidea bakarrik, eta guk datu orreek emonda operadorea arduratzen da bere telefono-zenbakia topeteaz). Lauki baten informaziñoa topetako erabilgarria izan leiteken berba edo berbak idatzi eta 'bilatu' edo Intro tekleari sakatu bear deusagu.

Eta orduan, bildurtu egingo gara, bilatzaileak informaziño ori izan leien web gune asko eta asko bueltetan deuskuzalako. Irtenbidea: bilatzaileari errasto edo pista zeatzagoa emotea (informatikan, *bilaketa aurreratua* esaten jako orreri).

Informaziñoa eskatzen dogunean, zeaztu geinke baita ze izkuntzatan jaso gura dogun be. Osterantzean, naziñoartekoa dan *TELÉFONO* edo *INTERNET EDO INFORMÁTICA* berbea eskatzen badogu, adibidez, ainbat izkuntzatan dagozan web guneak agertuko jakuz. Gaiñera, bilaketa aurreratua egiten dogunean beste aukera batzuk be zeaztu geinkez.

Gaur egun, bilatzaile orokorrak sano onak dira: Google, ispavista, Altavista, Lycos, Opera eta abar dira ezagunenak. Alanda be, informaziño zeatzagoa bilatu gura izan ezkeru (adibidez, literatureari edo izkuntzeari buruzko ikerketa bat egiten gabiltzanean), onena bilatzaile espezializauak erabiltea da.

### **Informaziñoa bilatzeko estrategiak**

Denporea alperrik galtzea gura ez ba´dogu, komenidu da informaziñoa bilatzen asi aurretik estrategia bat zeaztea. Normalean, gogokoen dogun bilatzailea zabaldu (esate baterako, [www.google.es](http://www.google.es)) eta itsu-itsuan asten gara informaziñoa bilatzen. Askotan, orduak eta orduak emoten doguz ordenagailuaren aurrean, web guneak bata bestearen atzean bisitau eta ganorazko ezer topau barik. Azkenean, aaztu be egiten jaku zer bilatzen gabiltzan.

Batzuetan, denporea bear izaten da informaziñoa topetako teknikea ikasteko, baiña merezidu dau aalegiña egitea, gerora ikaste-prozesu orren etekiña jasoko dogu, eta informaziñoa erraz eta denpora gitxian topetan ikasiko dogulako.

### **PRAKTIKEA**


Teoria entzun eta entzun ibiltea baiño, danok be gurago dogu praktikara jotea. asi gaitzan.

Esate baterako: Euskaltzaindia web gunea bilatu gura dot. Ba-dakigu Internet´en dagoala, eta baleiteke euren web gunean ikusgai egotea. Edo agian ez. Baiña, beintzat, saiatuko gara topetan. Gauza bera Eusko Jaurlaritza´ri edo Labayru´ri buruzko informaziñoa bilatu gura badogu.

Esan dogun moduan, elbide geientsuenak *www* karaktere-multzoaz asten dira. Beraz, pentsau geinke topetan gabilzan erakundearen elbidean *euskerazaintza* izena egongo dala, edo bearbada *www.euskerazaintza* izan leiteke. Orain, errialdearen domeñua bakarrik bear dogu; kasu onetan, es izango litzateke. Baiña igual ez dauka errialdearen domeñurik, baizik eta jardurearena, au da, *org*, *com*, *net*, *edu*...

Saiakerak egingo doguz. Leenengo, *www.euskaltzaindia.com* sartuko dogu. Baiña ez dogu emaitzarik lortuko.

Beste aukera bat da bilatzaile batera jotea (Google, Altavista...) eta bilaketen eremuan olako zezer idaztea: euskaltzaindia. Gero, *bilatu* botoiari sakatu eta zera lortuko geunke:




Emaitza ori olan interpretau geinke: Pantailan 10 web gune ikusi geinkez; *urrengoa* sakatu ezkerro, gaiñerako web guneen zerrendea ikusi aalko dogu. Euskaltzaindia aitatzen daben 149.000 web gune topau dauz, eta leenengo aukereak olan diño: "Euskaltzaindia. Real academia de la lengua vasca. Académie de la...". Web gune bat sarri bisitetan badogu, batzuetan konturatuko gara aren formatua, edukiña, diseiñua eta abar aldatu egin dirala; seiñale ona da ori, esan gura daualako web gunea sarritan eguneratzen dabela, au da, ez dagoala 'ilda'.

Kursorea "Euskaltzaindia" orretara urreratu, klik egin, eta jagokon web gunea agertuko da:




Beste saiakera bat egingo dogu: [www.google.es](http://www.google.es) web gunean gagoz, eta 'eusquera' berbeagaz zerikusia daukan guztia erakusteko eskatuko deusagu; auxe agertuko da:



Begiratu goiko partean, eskumaldean: 14.400.000 web gune topau dauz 0,05 segundotan. Web guneak amarnaka erakusten deuskuz; alanda ze, egunak eta egunak bearko guztiak ikusteko.




'eusgara' berbea eskatu ezker, oster, auxe agertuko litzateke:




au da, beste 13.900.000 web gune (eta orreetako bakotzak orri piloa euki leiz barruan). ori guztia 0,07 segundotan.

Berba biak batera eskatu ezker (*euskera euskara*), auxe agertuko litzateke:



Web guneetan dagoan informaziñoa ikusteko: ipiñi kursorea azpimarratuta dagoan testuaren gaiñean (eskuaren irudia agertuko da), egin klik saguagaz eta bisitau gura dogun web gunea agertuko da.


Eta zer gertatuko litzateke informaziñoa bilatu gura badogu baiña ez badakigu 'euskara', 'eusquera', 'euzkara', 'euçkara' edo antzeko besteren bat idatzi bear ete dogun? olako kasuetan, komodiña edo edozertarakoa erabili geinke, au da, izartxo edo asteriskoa (\*). Adibidez, *eusk\** idatzi geinke, eta euskereagaz zerikusia daukan guztia erakutsiko leuskigu: euskara, Euskaltzaindia, Euskerazaintza, etab.



Modu berean, *Bilaketa Aurreratu* izeneko atalera joan eta eskaintzen deuskuzan aukerak bete geinkez (esate baterako, *itz auetako edozein barne dela* aukeran auxe idatzi geinke: "euskara, eusquera, euzkara"; olan, bilatzaileak berba orreetako bat edo batzuk daukiezan web guneak bueltauko deuskuz).

## Estrategiak

Orain, *nire aitaren etxea* esaldia bere barruan daukien idatziak bilatu gura




dodaz. Ikusi daigun emaitza:



Google-n, 13.100 web gune topau dauz (0,04 segundotan). Ziurrenik, ezta gure liburutegian be ez geunkez topauko ainbeste erreferentzia.

Dana dala, esaldi zeatz ori daukien web guneak bilatu gura badodaz (eta ez esaldi ori osotzen daben berbak edozein ordenatan daukiezan web guneak), esaldi bera baiña komatxo artean eskatu geinke bilatzailean, au da: "*nire aitaren etxean*". olan, bilatzaileari esaten deusagu esaldi ori osotzen daben berbak ordena orretan (eta ez, adibidez, "*aitaren etxean nire*") daukiezan web guneak bilatu gura doguzala.

Beraz, "*nire aitaren etxea*" idatzita auxe lortuko geunke:



Emaitea: 593 web gune (0,22 segundotan).

*Bilatzaileak olan erakutsiko deusku emaitzea:*

### [Nire aitaren etxea](#)

**Nire aitaren etxea** defendituko dut. Otsoen kontra, sikatearen kontra, ... **nire aitaren etxea**; besorik gabe, sorbaldik gabe, bularrrik gabe utziko naute, ...  
www.geocities.com/mikelagirregabiriaagirre/aresti.tm - 5k - [Katxean](#) - [Antzeko orriak](#)

*Emaizta ori interpretetan ikasiko dogu:* Kursorea "Nire aitaren etxea" esaldiaren gaiñean ipiñi eta saguagaz klik egiten badogu, jagokon web gunea ikusiko dogu (leen esan dogun moduan, nonok sortu eta argitaratu bear izan dau web gune ori, gero guk ikusi aal izateko). Bilatzaileak web guneari buruzko laburpentxo bat emoten deusku:

**Nire aitaren etxea** [baltzez, ori dalako eskatu dogun informaziñoa] defendituko dut. Otsoen kontra, sikatearen kontra...

Gero, web gunearen elbidea agertzen da: [www.agirregabiria.net/g/mikelagirregabiriaagirre/aresti.tm](http://www.agirregabiria.net/g/mikelagirregabiriaagirre/aresti.tm) (ez da bearrezkoa elbidea buruz ikastea, urdiñez eta azpimarratuta dagoan zatian klik egitean jagokon web gunera bialtzen gaitualako).

Ostean: *Katxean*. ori ez da agertzen web gune guztietan. Zera esan gura dau: asieran, web gunea modu batera argitaratu zan, eta orain aldatuta dago edo ez da geiago existiduten; dana dala, argi dago leenago existidu izan dala eta, bearbada, *Katxean* atalean klik eginda web gune ori agertzea lortuko dogu.

Osogarri moduan, eskatutakoaren antzekoak diran web guneetara joateko aukerea emoten deusku.

Batzuetan, *Itzulpena* aukerea be badogu. Esate baterako, informaziño au eskatuko dogu: Universidad de Reno + basque. Eta auxe aterako jaku, ingelesez:

[Center for Basque Studies](#) [[Itzuli orri au](#)] (klik eta zuzenean itzulpena egingo dozku)

Center is located at te **University** of Nevada, **Reno**, and as local information about **Basque** community in Nevada, but also cultural information, ...

[basque.unr.edu/](http://basque.unr.edu/) - 11k - [Katxean](#) - [Antzeko orriak](#)

Ikusten dozuen moduan, *Itzuli orri au* agertzen da leenengo lerroaren amaieran. Ikusi daigun emaitza:

**Orain, zera itandu gura deusuet: uste dozue liburutegietan be informaziño ori topetako gai izango gintzatekezala? Itaun orren erantzuna zuen esku utziko dot.**

## **Bilatzailleak**

Momentu onetan, bilatzailerik aaltsuena Google da, seguruenik. Apurka-apurka, bilatzaile txiki geienak erostea lortu dau, eta, orain, bera da indartsuena. Gaiñera, egia da eskaintzen dauan informaziñoa danetan osotuena dala. Dana dala, uste dot emen zagozenok informaziño aberatsagoa eta osotuagoa topau gura izango dozuela literatureari, euskeraz idatzitako bearrei, ikerkuntzeari eta abarri buruz. Labur bada


be, jarraian informaziño ori topetan lagunduko deusueezan pausu batzuk azalduko doguz.

### ***Bilatzaile espezializauak***


[www.altavista.com](http://www.altavista.com)

Konparaziñoa egingo dogu. Google-n sartu ezker, auxe lortuko dogu: adibidez ONU eskatuko dogu.

Lauki zurian bilatu gura dogun berbea sartuko dogu. orren bealdean, auek aukeratu geinkez: Sarean bilatu, gaztelaniaz, Espaiña errialdeko orriak.



Bilaketea [www.altavista.com](http://www.altavista.com) bilatzailean egiten badogu, auxe lortuko dogu:



Bilaketa-eremuaren bealdean, ainbat aukera eskaintzen deuskuz.

*Bilaketa Aurreratua* aukerara joaten bagara (ENCONTRAR berbearen eskumaldean dago, *Búsqueda avanzada*), bilaketea geiago zeazu ahalko duzu. Auxe aterako litzateke:

Oraindik be, urrengo leketan topetako aukerea emoten deusku: mundu osoan, Espaiñian, izkuntza guztietan, ingelesez, gaztelaniaz... au da, norberak gura dauan moduan.

Orain, itauna egiten deusat neure buruari: zer gertatzen da karaktere bereziakaz, au da, 'ñ', 'ç' eta antzekoak edota leengo euskeran idatzitako idazlan batzuetan agertzen diran '´r', '´l' eta antzekoakaz? Ikertzen jarraituko dogu.

Bilatzaille espezializau batzuk onartu eta bereiztu egiten dabez karaktere orreek eta dieresia. Azentu-markak kontuan artzen ez dauzan bilatzaille bat erabilten badogu, emaitza benetan eskasa lortuko dogu. Ostera, jakiten badogu zeintzuk diran karaktere bereziak eta dieresiak onartu eta bereizten dabezan bilatzailleak, askozaz be emaitza zeatzagoa lortuko dogu.

[www.alltheweb.com](http://www.alltheweb.com) (sare osoa; baiña, ziurrenik, ingelesez dagozan web guneak bakarrik topauko dauz)

[www.ask.com](http://www.ask.com) (*itandu*)


[www.internetinvisible.com](http://www.internetinvisible.com) (dana ez dago edozeinek eskuratzeko moduan)

[www.lycos.es](http://www.lycos.es)

[www.directit.com](http://www.directit.com) (*kolpe zuzena*)

Beste praktika-saio bat egingo dogu:

[www.internetinvisible.com](http://www.internetinvisible.com) web gunean sartuko gara, eta auxe ikusiko dogu:



Itzulpen-proiektu bat egiteko, iztegiak, glosarioak edota tesaurusak bear doguz. Datu orreek, normalean, datu-baseetan antolatuta agertzen dira.

Oarrak:

- *Bilaketa-eremuan, berbak azentu-markeagaz idatzi bear dira*
- *Bilatzailak onartu eta bereiztu egiten dauz azentu-markak*
- *Maiuskulaz zein minuskulaz idatzi leike, eta ez da bearrezkoa artikulak, preposiziñoak eta konjunziñoak idaztea (au da, berba utsak, esangurarik ez daukienak)*
  - *Ezin da erabili komodiña erro bera daukien berba guztiak topetako*
  - *Erantzun egokia lortzen ez bada, bilaketa-eremuan idatzitako berbak akats barik idatzi doguzala konprobau bear da, eta, ostantzean, gai orren inguruko beste berba edo termino batzuk edo sinonimoak idatzi bear dira*



[Ez aaztu *Internet Invisible* sarbidea besterik ez dala; or topauko dogun datu-base bakotxak sistema desbardiña erabilten dau bilaketea egiteko, beti be eskaintzen dauan informaziñoari egokitua. Beraz, garrantzitsua da ezagutzea erabili gura dogun datu-base bakotxaren bilaketa-sistemea.]

Adibidez, [www.internetinvisible.com](http://www.internetinvisible.com) web guneari eskatuko deusagu estadistikeari buruzko terminoen glosarioa topetako. urrengo web gunea agertuko jaku:

Acceso Temático ´n Economía aukeratu, ostean Estadística eta laukian idatzi "glosario" –eman intro- eta auxe agertuko da "glosario de términos estadísticos", eta bere barruan izkuntz desberdiñetan:



eta euskeraz be bai.

Urrengo emaitzan sartuko gara:

## 6. [Inguma Base de datos de la comunidad científica vasca \(www.inguma.org\)](http://www.inguma.org) ´n dago.

[Inguma](http://www.inguma.org). Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea

BASE DE DONNÉES DE LA COMMUNAUTÉ SCIENTIFIQUE BASQUE.

Babeslea: . Laguntzaileak: . ehu. Harremanetan jartzeko ::

[inguma@ueu.org](mailto:inguma@ueu.org).

[www.inguma.org/](http://www.inguma.org/) - 15k - [Katxean](#) - [Antzeko orriak](#)

[Inguma](http://www.inguma.org/). Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea

Euskalpod 5.saioan **Inguma** datu-basearen berriei buruz hizketan


... UEUK kudeatzen duen **INGUMA** datu-basea, bi berrikuntzekin jantzi da. ...

[www.inguma.org/prentsa.php?hizkuntza=eu](http://www.inguma.org/prentsa.php?hizkuntza=eu) - 28k - [Katxean](#) -


[Antzeko orriak](#)

[ [www.inguma.org](http://www.inguma.org) domeinuan emaitza gehiago ]


Eta web gune orretara joten badugu, auxe agertuko jaku:



Adibidez, "tesaurusak euskara" eskatzen badugu eta bean "ordena" aukeratzen badugu, olako zeozer agertuko jaku:



Eta Opentrad-era joatea gura badugu, klik egin eta auxe agertuko jaku:  
[www.opentrad.org](http://www.opentrad.org)



Erdaraz ikustea gura badogu goian, eskumaldean, *ca* (katalana), *en* (ingelese), *es* (gaztelania), *eu* (euskara), *gl* (galegoa) eskatu aal dogu.

### **INFORMAZIÑO A BILATZEA maiuskulak eta minuskulak erabilita**

Bilatzaile geienek ez dabez bereizten minuskulak eta minuskulak, au da, batera zein bestera idatzi, gauza bera ulertzen dabe. ori gertatzen da, adibidez, Google eta Altavista bilatzaileakaz. Maiuskulak eta minuskulak bereiztea gura badogu, beste sistemaren baten bidez adierazo bear dogu.

Maiuskulak eta minuskulak bereizten dabezan bilatzaileek, ostera, oso emaitza desbardiña erakusten dabe.

<http://altavista.com> web gunegaz saiatuko gara barriro. Gogoratu ez dala bearrezkoa <http://> idaztea; [www.altavista.com](http://www.altavista.com) idatzi, eta berez <http://altavista.com> web gunera bideratuko gaitu.

Bilatzaileek zati bi eukiten dabez: *bilaketa arrunta* eta *bilaketa aurreratua*. Bigarren orretan, posible da bilaketak murriztu eta zeaztea.

Informaziño zeatzagoa bilatu gura dogunean, beste trikimailu batzuk be erabili geinkez. urrengo taulan, orreetako batzuk ikusiko doguz:

Eragileak edo operadoreak	Erabilerea	Adibidea
AND Y + &	Bilatu gura doguzan baliabideek bi termino orreek euki bear dabezala zeazteko	<i>iztegia</i> AND <i>medikuntza</i> Bi berba orreek daukiezan web guneak bilatuko ditu
NEAR ~ (~: ñ letrak gaiñean daukan markea da, eta <i>Alt+0152</i> teklak aldi berean sakatuta idazten da)	Aurrekoaren esangura bera dauka, baiña, onen bidez, adierazoten deusagu guk aukeratutako berben artean berba-kopuru jakin bat bakarrik egon leitekela	<i>iztegia</i> NEAR <i>medikuntza</i> <i>iztegia</i> eta <i>medikuntza</i> berbak berba-kopuru jakin bateko distantziara dagozan web guneak bakarrik topauko dauz
OR	Gitxienez terminoetako bat daukien web guneak bilatuko ditu	<i>iztegia</i> OR <i>glosarioa</i> <i>iztegia</i> edo <i>glosarioa</i> berbak daukiezan web guneak bilatuko dauz
XOR	Aurrekoaren aldaera bat da. Bi terminoetako bat (edo, termino geiago sartu badoguz, orreetako batzuk bakarrik) daukiezan web guneak bilatuko dauz	<i>iztegia</i> XOR <i>glosarioa</i> <i>iztegia</i> berba daukien eta <i>glosarioa</i> berba ez daukien web guneak bilatuko ditu, eta alderantziz
NOT	Ikur auek erabilten dira adierazoteko web	<i>ezkuntza</i> AND NOT


<p>AND NOT Y NO - !</p>	<p>guneek leenengo berbea euki bear dabela, baiña ez bigarrena</p>	<p><i>gimnastika</i>  ezkuntzeari buruzko web guneak bilatuko dauz, baiña ez gimnastikari buruzkoak</p>
<p>* \$ ?</p>	<p>Komodiñak edo edozertarakok dira, eta letra bat edo geiago ezkutau edo jateko aukerea emoten deuskue</p>	<p><i>medik*</i>  <i>Mediku, medikuntza, mediko</i> eta antzeko terminoak daukiezan web guneak topauko dauz</p>
<p>()</p>	<p>Parentesien bidez, operadore edo eragile batzuk erabili geinkez aldi berean</p>	<p>(<i>iztegia</i> AND <i>glosarioa</i>) OR <i>terminologia</i>  Topauko dauz, batetik, <i>iztegia</i> eta <i>glosarioa</i> berbak daukiezan web guneak, eta, bestetik, <i>terminologia</i> berbea daukienak.</p>



## 2. ZER EGIN GEINKE TOPAU DOGUN INFORMAZIOA LIBURU FORMATUAN DAGOANEAN – ADOBE READER

Au benetako ikerkuntza-bearra izango litzateke.

Alkartearen web gunean sartuko gara: [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz). Bertan ikusi aal doguz, beste batzuen artean, *Zer* aldizkaria, *Euskerazaintza* aldizkaria eta alkarreak argitaratutako liburuak .



au ikusiko dogu:

asiera

**euskerazaleak**

- euskal astea
- ikasturtea
- informazioa
- liburu gorria

**aldizkariak**

euskerazaintza

- aldizkariak
- zerrenda
- bilatu

zer

- zerrenda
- bilatu

**liburutegia**

- idazleak

**BFA DFB**

kontaktua:  
Martin Olazar

**Zer aldizkaria - Microsoft Internet Explorer**

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Atrás Búsqueda Favoritos

Dirección <http://www.euskerazaleak.biz/> Ir Zend Studio Debug Profile


**Aita Santi Onaindia/Liburuak**

Artikuluak Liburuak OLERKI (ta testu literarioen) ITZULPENAK Olerkiak


	Dokumentua	MB	Irakurri	Gorde
1954	Mila Euskal Olerki Eder 627.pdf	3,19 MB		
1956	Goi-Zale.pdf	1,16 MB		
	Olerkiak Arrese Beitia.pdf	1,87 MB		
1960	Bertso Berri ta Kanta Zar I.pdf	0,28 MB		
	Bertso Berri ta Kanta Zar II.pdf	0,18 MB		
1963	Eguneroko meza.pdf	4,14 MB		
	Iru Poema R. Tagore.pdf	0,60 MB		
	On Bidea Santa Teresa.pdf	1,13 MB		
1964	Gure Bertsolariak.pdf	1,46 MB		
	Ondarrak Txomin Agirre.pdf	0,80 MB		
1965	Jolasketa.pdf	2,41 MB		

Inicio MSN Hotmail - Bande... C:\Documents and S... OHARRAK - Acrobat... Zer aldizkaria - Mi... 11:37

AITA SANTI ONANDIAREN liburueta joko dogu, eta, adibidez, *Euskal Literatura I.pdf* liburua deskargau edo jatsiko dogu (orretarako, instalauta euki bear dogu .pdf amaiera daukien fitxategiak ikusteko aukerea emoten dauan programea: Adobe Reader; bear izan ezker, [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) web gunearen leenengo orritik bajatu aal dogu). Liburua deskargau eta gero, olako zezer ikusiko dogu laugarren orrialdean:



Adibidez, guk jakin gura doguna da zelan erabilten eban Aita Santik aditz jakin bat. orretarako, BILATU botoiari sakatu eta *zitzazkigun* aditza bilatzeko esango deutsagu. Emaitza au lortuko dogu:



Eskumako zutabean, ikusten dogu liburu onetan zitzaizkigun aditza 17 bider agertzen dala; orreetako bakotxean klik eginda, ezker aldean ikusiko dogu non dagozan *zitzaizkigun* orreek eta zeintzuk diran areen deklinaziñoak.

Bearbada, interesauko jaku aditza agertzen dan paragrafoak osorik ateratea. orretarako, leengoan topau, aukeratu, kopiau eta, adibidez, testu-orri baten erantsiko dogu. Gero, bigarrena topau, aukeratu, kopiau eta erantsi. Eta olan, arik eta paragrafo guztiak topau, aukeratu, kopiau eta erantsi arte. Esate baterako, onelako zeozer geratuko litzateke:

Lefevre, Sorbona'ko Ikastetxe nagusian Irakasle zegonak, idazten zigun: «Maggiar, turkera, suomi ta abar, Europa'n sartu **zitzaizkigun** euroi dagozkien erriakin batera; Euskalernia ta beronen izkuntza, berriz, Edestia baiño aurreragokoak ditugu Pirene aldean, ta ez antropologuak, ez etoologuak, ez izkuntzalariak ezin izan dute oraindik bertan nola sartu ziranik zeaztatu.

Europa'ko izkuntza guztiak, iru bat milla urte lez dirala, indo-europearren eraso ta zapaltzeaz suntsiturik geldito ziran; euskerak bakar-

bakarrik eraman zuen, ondatu gabe, aien zigorraldia zigorraldia; onetxek bakarrik iraun zuen zutik, eta gaur ere horrela daukagu: gertakari miresgarria benetan, eta bakarra Europa'n eta mundu osoan, bear bada».

ERROMATAR IDATZ-IZENAK.—Erromarrak naiko luzaro bizi izan **zitzaizkigun** Akitania lurraldeetan; Akitania au Garona ibaitik Auñamendi'raíño luzatzen zan; ementxe bizi zan, jatorriz bezela, *Ausci* (auski) gizatalde garrantzitsu bat: ortik datorkigu, antza, *eusko* ere. Lurralde ontan aurltzen dira gaur ere, euskeraz idatziriko agerkairik zar eta seguruenak; Jainko ta pertsonen izenak dituzu, M. Lucaire'k estalgetuak batez ere. Ortxe agertzen dka, latíñez idatzita, euskal izen ezin-nastuak: *andere*, *nescato*, *cison* (gizon), *sembe* (seme), ta abar; baita jainko batena ere: *aerbelste* (*arbels*, «aitz beltz» ala «aker beltz»?).

Euskal literaturan maiz izan dira lendik ere olako saio-egin naiak, Bidasoz andik eta emendik. Arana-Goiri'k burutu zigun ontan lanik ederrena ta sakonena, bere garaian; gero, Euskaltzaindia sortuta laister, 1920'an, Campion, Broussain eta beste batzuk lan ederra osatu zuten, «Euskera» —1922, ilbeltza-epailla— Orixe ta besteak ortan arduratu **zitzaizkigun**. Oraintsu, berriz, urrats tinko bat eman bearra zegola-ta, 1969'eko urrillaren 3-4-5'an, Arantzazu'n ospatu zan billera zaratatsuan erabaki batzuk artu ziran euskera idatziaren batasuna aurrera eramateko.

Gipuzkoarren buruzagi izan zan zaldun argi au, batez ere 1476'garren urtean, Prantzia'ko Luis XI'garrenak guda-gizon askorekin Ondarribi inguratuta zeukala, uri au askatzen trumilka joan ziranean. Kementsu saiatu **zitzaizkigun** euskaldun gudariak, eta prantsesak, inguraturik zeukaten uria utzi ta beren aberrira jo bear izan zuten ankotsean.

Zazpi bat aapaldi ditu; aintziñakoa dirudi, baiña ez dakigu noiz ondua danik. Erromatarrak emendik ibilli **zitzaizkiguneko** burruka ta nasteak dakarzkigu gogotara. Galdua gendun nunbait, ainbat euskal kanta zar bezela; paper auts-ontzitu artean lo zegoen. Baiña umboldt doixtarrak aurkitu zuen Markiña'n, P. B. Mugartegi'ren liburutegian zeuden /barguen eta Katxopin'en paper artean, eta, 1817'an argitara ekarri zuen. Asko ditugu arrezkero lelo onetzaz jardun dutenak: Mogel, Manterola, J. Urkixo, L. Lezama-Legizamon, J. K. Gerra ta abar. Azken urteotan ere bai: J. Garate, *Boletin de la R. S de los Amigos del Pais* (Donostia, 1950); J.



Gorostiaga, *Epica y Lirica vizcaina antigua* (Bilbao, 1952); S. Onaindia, MEOE (Zarautz, 1954), eta Auñamendi, *Literatura*, I, (Donostia, 1969).

Ipiñi dogun adibide au egiteko, bost bat minutu bakarrik bearco geunkez. Baiña Aita Santiren obra guztia aztertu eta *zitzaizkigun* aditza zenbat bider eta non agertzen dan bilatzeko be eskatu aal deutsagu. Gaiñera, beste programa batzuk be erabili aal doguz berbak eta esakerak bilatzeko, esaldiak eta paragrafoak aterateko, eta abar. Bibliografia osoa eskura izan ezkeru, ordu bete inguru bearco geunke. Baiña ori beste kontu bat da.

**Orain, auxe itandu gura deutsuet: euskereari jagokonez, zertarako balio dau Internet ´ek?** Ostera be, norberak bilatu bear dau itaun orren erantzuna. Nire uste apalean, zenbat eta informaziño geiago sartu Internet ´en euskeraz eta euskereari, euskaldunei eta Euskal erriari buruz, jende geiagok eukiko dau informaziño ori eskuratzeko interesa.

Eldu gara gaurko berbaldiaren amaierara. Eskerrik asko danori eta gura dozuen arte.

**Urrengo uri eta erri auetan, euskerea irakasten dabe ainbat erakunde publikotan:**

Alemania: Berlin eta Frankfurt.

Argentina: Villa María.

Armenia: Erevan.

Txile: Santiago eta Valparaíso.

Espaiñiako estaduan: Madril, Salamanca, Bartzelona, Tarragona eta Valentzia.

Ameriketako Estatu Batuak: Reno (Nevada) eta Boise (Idao).

Finlandia: Helsinki.

Frantzia: Pau eta Bordele.

Georgia: Tbilisi.

ungaria: Budapest.

Irlanda: Dublin.

Italia: Roma eta Napoli.

Japon: Tokio.

Mexiko: Ciudad de México.

Polonia: Varsovia eta Poznan.

Erresuma Batua: Londres eta Birmingham.

Txekiako Errepublika: Praga.

Errusia: Mosku eta San Petersburgo.

Uruguai: Montevideo.

### **Loturak:**

Sancho el Sabio Fundazioa (Gasteiz): <http://www.fsancho-sabio.es>

Eusko Jaurlaritza, Euskara: <http://www.euskara.euskadi.net>

Intza proiektua - Euskal lokuzioak sarean: <http://intza.armiarma.com>

Gotzon Garate – Atsotitzak: <http://www.ametza.com/bbk/tdocs/asiera.tm>